



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2009-11-08**

VIIURTEA 1.822.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Berastegin arroz esne lehiaketa antolatu dute aurtengoan. Irudian, atzo, parte-hartzaileak platera prestatzen. A. IMAZ


KULTUR EKITALDIAK EGURALDI TXARRARI AURRE EGITEKO

TOLOSALDEA Amezketan, Berastegin, Ibarra, Ikaztegieta eta Oresan ari dira Kultur Asteak ospatzen; atzo ekitaldi ugari izan ziren 6

SAMIRA GODDI TOLOSALDEKO IMMIGRAZIO TEKNIKARIA

«Eskualdea aztertu eta beharrei erantzuna ematea da helburua»

TOLOSALDEA Eragileekin zubi lana, kudeaketa eta koordinazioa egitea da bere egitekoa 7



I. GARCIA

GUILLERMO OLMO ESKULTOREA

«Lan honekin aspaldiko Aralarreko zuhaitzak berreskuratu ditugu»

AMEZKETA San Martingo basilizaren ondoko lursailetan ikus daiteke 'Atari' eskultura berria 5

Aitor Mendiluze bigarren, lehen finalaurrekoan

IRURA 680 puntu lortu zituen; Maialen Lujanbio izan zen lehena 708,5 punturekin 4

» **BEHOBIA-DONOSTIA LASTERKETAN ESKUALDEKOEN AZKEN URTEETAKO EMAITZAK****2002**

- **Parte-hartzaileak.** 276.
- **Gizonezkoak.** 250.
- **Emakumezkoak.** 26.
- **Lehen gizonezkoa.**
Juan Mari Garin (Zizurkil) 1:06:40.
- **Lehen emakumezkoa.**
Sara Alonso (Tolosa) 1:26:15.

2003

- **Parte-hartzaileak.** 294.
- **Gizonezkoak.** 261.
- **Emakumezkoak.** 33.

■ **Lehen gizonezkoa.**

- Juan Mari Garin (Zizurkil) 1:08:11.
- **Lehen emakumezkoa.**
Isabel Dumall (Asteasu) 1:24:07.

2004

- **Parte-hartzaileak.** 296.
- **Gizonezkoak.** 273.
- **Emakumezkoak.** 23.
- **Lehen gizonezkoa.**
Xabier Arratibel (Tolosa) 1:07:08.
- **Lehen emakumezkoa.** Maider
Gaztañaga (Tolosa) 1:18:08.

2005

- **Parte-hartzaileak.** 338.
- **Gizonezkoak.** 293.
- **Emakumezkoak.** 45.
- **Lehen gizonezkoa.**
Hassain Ait Chauo (Villabona)
1:09:26.
- **Lehen emakumezkoa.**
Elena Huarte (Ikaztegieta)
1:22:45.

2006

- **Parte-hartzaileak.** 307.

- **Gizonezkoak.** 267.
- **Emakumezkoak.** 40.
- **Lehen gizonezkoa.**
Hassan Ait Chauo (Villabona)
1:08:50.
- **Lehen emakumezkoa.**
Mertxe Egiguren (Tolosa)
1:28:32.

2007

- **Parte-hartzaileak.** 351.
- **Gizonezkoak.** 307.
- **Emakumezkoak.** 44.

■ **Lehen gizonezkoa.**

- Ramon Otegi (Gaztelu) 1:06:17.
- **Lehen emakumezkoa.**
Loitzun Artola (Ibarra) 1:26:48.

2008

- **Parte-hartzaileak.** 411.
- **Gizonezkoak.** 352.
- **Emakumezkoak.** 59.
- **Lehen gizonezkoa.**
Ramon Otegi (Gaztelu) 1:06:23.
- **Lehen emakumezkoa.**
Aitziber Ibarbia (Zizurkil) 1:29:01.

L **Lehen eta orain**

Tolosako Letxuga kalearen lanak amaituta

TOLOSA • Sei hilabeteren ostean, badirudi lasaitasuna iritsi dela berriro ere Letxuga kalera. Udalak azaldutakoaren arabera, egin beharreko lanak egiten aritu dira bertan, hau da, hodi-terria aldatzen. Horretarako duela gutxi jarri zuten lurra altxa beharra izan zuten. Itxura berezia eman zioten orduan Letxuga kaleari: zoru berria zen, baina garai batekoa gogorarazten

zuen, eta ziurrenik Alde Zaharreko nahiz Tolosa osoko xarma handiena zuen kalean bihurtu zen. Egin berri dituzten lanengatik, ordea, lurra aldatu diote, eskuineko irudian ikusten den bezala. Ez ote diote lurraekin batera izaera ere aldatu? Izan ere, beste hainbat kaleren itxura berdina hartu du lehen parekorik ez zuen herriko kale esanguratsu honek. I.G./T.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitz.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 • 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719
WWW.FUNERARIIVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Ohikoa baino jende gutxiago larunbateko azokan euriarengatik

Azoka » Eskaintza ederra izan zen postuetan, eta batez ere neguko barazkiak nabarmendu ziren.

PABLO ALBERDI

Atzoko eguraldiak ez zuen asko lagundu azoka egunean. Goizeko lehenengo orduko giroa nahiko lasaia izan zen, baina pixkanaka, eta goiza aurrera zihoala, erosle gehiago gerturatu zen, eta gehienak gure azokako babesean sartzea erabaki zuten.

Eskaintza ederra izan zen. Barazki asko, gehien bat negukoak, nahiz eta leka eta pipar bakarren bat ere izan. Azen familiko barazkiak ugariatu egin dira, eta hauekin zerba, txikoria, borraia eta espinaka.

Fruta zerrenda ere oso ugaria izan zen, errezil sagarra nagusituz. Hauekin urrak, intxaurrek, gaztainak, kiwiak eta mizpiradiak ikusi genituen.

Perretxiko eskaintza ere aipatzekoa izan zen. Bertako onddoa, nikalaoa eta gibelurdina ere ikusi ahal izan ziren, denak egundoko kalitatez osatuta.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares.	Landareak	
Azalea	7,00	10,00
Erromeroa	4,00	6,00
Zainzurria	2,80	-
Salbia	1,00	1,20
Dipladenia	10,00	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak		
Onddoa	20,00	30,00
Lanperna	20,00	-
Onddoak potetan	9,00	-
Ziza horia	10,00	-

Fruta

Kiwiak	3,50	-
Gaztainak	3,00	-
Intxaurrek	2,50	4,00
Irasagarra	1,00	-

Barazkiak (sorta)

Ziazerba	1,00	-
Tipula	0,80	1,00
Espinaka	2,00	-
Porrua	1,00	4,00

Barazkiak (kiloa)

Babarrun berria	12,00	13,00
Babarrun zuria	8,00	-
Ibarrako piparra	3,00	-
Tolosako babarruna	10,00	12,00

PRODUKTUEKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Kalabaza	1,60	3,04
Mermelada	3,00	3,60
Arrautzak	3,50	-
Arroza	1,90	2,00

Zurea da hitza

info

Agenda 21 zer den irakasten

Asteazken goizean Irurako ikastolako 5 eta 6. mailako haurrak etorri zitzaizkigun udaletxera. Tokiko Agenda 21 zer den azaldu genien. Garapen iraunkorren oinarritzen da eta hiru faktore nagusi ditu: gizartearen ongizatea, ingurumenaren babesa eta garapen ekonomiko orekatua. Garapen iraunkorra gauzatzeko hiru pauso jarraitu behar dira: diagnostikoa, ekintza plana eta jarraipena. Orain jarraipenean gaude, ebaluazioan. Ongi egin diren gauzez eta oraindik hobetu behar ditugunez aritu gara. Ikastolako gaztetxoek ere beraien proposamenak egin dizkigute. Azaroaren 26an herri batzarra egingo dela esan diegu eta jendea animatu behar dutela.

Iurako Udala

Zergatik dabil makal Alde Zaharreko komertzioa?

Tolosako Alde Zaharreko saltzailerak maiz kezkatzen dira, Udalak



Iurako udaletxean izan ziren gaztetxoak Marimi Ugalde alkatearekin. HITZA

aparkalekuak ez dituela ondo kudeatzen eta ez duela Alde Zaharrean barruan zirkulaziorik onartzen: horregatik dabilzala larri eta ari direla dendak ixten. Nire iritzia beste bat da: gehiegizko irabazi marjina dute denda txikiak produktuek: jakiek, arropak, eta zeresanik ez, tabernetako generoak: tragoak eta pintxoak, batez ere.

Nik janaria super edo hipermerkatuetan erosten dut arrazoi oso simple batengatik: merkea ez den arren, ez zait tonto aurpegia geratzen, edozein txorakeriagatik kartera hustu didatela eta. Arropa

eta zapateriak berdintsu: denborez aldi amaieran %70eko deskontuak egiten badituzte... zenbateko irabazi marjina daukate tenporadan zehar? Gajo eta gizajotzat gauzate? Tabernetakoak izenik ez du: ardo bat eta pintxo bat 3 eurotik gora ordaindu behar bada, garai bateko 500 pezeta baino gehiago... Nori igo diote soldata proportzio horretan eurora pasa ginenetik? Ni neroni, ibiltzen naiz tabernetan, baina gero eta gutxiago: lagunen erronda bat pagatu eta beldurtuta geratzen naiz. Hori guztia esanda, ni ere kokoteraino

nago Tolosan aparkatu eta zirkulatzeko dagoen martxarekin. Noiz bukatu behar dute kolektore alu hori? Zertarako ari dira Alde Zaharrean txikitzen duela bizpahiru urte egindako espaloi berriak?

Mendikute

Proposamen bat

Bi aparkaleku berri ditugu Tolosan, eta Udalekoak, nonbait, harrizta daude, hutsik daudelako, jendek ez dituelako erabiltzen alegia. Irakurri dut bonoak jartzea pentsatzen ari dela udala, gautetan, egunez edota arratsalde zuzteko autoa bertan. Baina zergatik utziko dugu hor autoa orain arte kalean doan uzten bagenuen? Zer hobekuntza mota da hori?

Nire proposamena da bertakoen, hau da residente txartela duguontzat, aparkaleku gehiago jar ditzatela, TAO ordaindu beharreko zonaldeak kenduz, eta soilik bertakoenentzat utziz. Horrela joango da jendea aparkaleku horietara. **Haritz**

Gutunak

Bastarrika jaunari erantzuna

Lotsagabeak garelara? Guri 710 ibarbarek eman ziguten beraien bozka eta zuri? Gauzak argitze aldera, 2007ko uztailearen 20an egindako Udal bilkuran onartu zen informazio batzordeak sortzea (guztira 10) eta hauen osaketa zehaztu zen. Eztabaidaren ostean Udalbatza horretako 7. puntuan alkatearen liberezia eta zinegotzien soldata mailari buruzko ondorengo erabakiak hartu ziren:

- Zinegotzi bakoitzari 200 euro/hileko ordainsaria.

- Alderdi politikoko bakoitzeko 250 euro/hileko ordainsaria.

- 70 euroko dieta Udal bilkuran agertzeagatik zinegotzi bakoitzeko eta saioko.

- 30 euroko dieta zinegotzi bakoitzeko batzorde informatzaileetara azaltzeagatik (saioa) eta gehienez ere 6 saio izanaz hilabeteko.

- Batzordeetako lehendakari

ordainsaria (250 euro/hileko); denek dute batzorderen baten ardurua eta batzuek 2.

- Alkatesari berriz, Udalhitz 17 mailari dagokion soldata, hau da, 38.337,18 euro/urteko.

Ordainsari hauek nahikoak iruditu ez eta 2008ko otsailaren 26an ospatutako Udal bilkuran ondorengo onartzea erabaki zutenen.

- Alkatezari Udalhitz 26-ra igoztez soldata maila, hau da, urteko 53.456,11 euroko kopurura; ikusi zer nolako igoera 6 hilabetetan (gero guri lotsagabe deitzeko auserdia dute).

- Gobernu Batzordeko kideei ordainsaria 250 euro/hilabeteko.

- 30 euro/hilabetean dieta moduan Gobernu Batzordeko bilkuretara joaten diren zinegotziak.

- Zinegotzi bakoitzeko batzorde informatzaileetara joateagatik ordaintzen zaie dieta 60 euro/hileko, gehienez ere 10 saio hilero (ez dezagun ahaztu 10 batzorde informatibo daudela).

- Talde bilduen bileretara joateagatik jasotzen duten dieta (hiltzgia, Tolosaldea Garatzen...) 60 euro/saioko.

- Langile autonomoiei ordaintzen zaie 19 euro/orduko kopurua udaletxeko zereginek beraien lan galerei eragiten dieten kaltea erreparatzeko.

Datu hauek benetazkoak dira, edozeinek eskuratu ditzake eta zuk Bastarrika jauna lehenago aipatutako egunetan hartutako erabakiak berrikusiz gero, konturatu zara arrazoi dugula eta dioguna errealtatearekin bat datorrela.

Guk ez dakigu zenbat bilera izaten dituzun, ba al dakizu zergatik? Zuk gainontzeko zinegotziak batera batzorde informatzaileetara joateko ukatzen diguzuelako, zein ordutan diren hauek ezkatuaz. Bertara agertzea ezinezkoa zaigularik gehienak goizean izaten direlako Udal bilkurak bezala, eta horrela zuek bi helburu lortzen di-

tuzuelarik modu horretan jokatuz:

1. Gure presentzia ekiditea (ez ahaztu zenbat bozka lortu genituen).

2. Ibartarroi kostu erantsia suposatzen digu, izan ere, langile autonomoek 19 euro/galdutako lan ordu bakoitzeko kobratzen dute eta besteentzako lana egiten dutenei ere galdutako lan aldiagatik konpentsatu behar zaie. Beraz modu batera edo bestera patrika betetzen jarraitzen duzue... eta gu gara lotsagabeak.

Guk eskatu dugu behin eta berriaz bilerak beste ordu batzuetan egitea, bai guk eta bai edozein herritarrek bertan parte hartzeko aukera izan dezagun. Ikusitakoak ikusita, gu gara lotsagabeak? Ziur zaude?

Aitor Garmendia, Marijo Ruiz, Iban Galarraga, Hanot Karrera, Eburne Urdanpilleta (Ibarrako Udal Hautetsi Independentistak). Ibarra.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zerbitzaria.** Tolosako enpresa batek zerbitzaria behar du, aste-buru etan eta jai egunetan lan egiteko. Emakumea eta eskarmentuduna. 661 46 31 93.

GALDUTAKOAK

■ **Argazki kamera.** Tolosan, Eme-terio Arrese inguruetan, argazki kamera digital bat aurkitu da. Harremanetarako: 943 65 56 95.

@ **Facebook.** TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA eskualdeko egunkaria Facebook-en ere topatuko duzu aurrerantzean.

Beraz, albisteak, argazkiak, bideoak, audioak, iritziak, eztabaidak... ikusteko beste modu bat ere baduzu hemendik aurrera. Facebook-en sartu, eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza jarri besterik ez duzu egin behariko egunkariaren profilerara jo ahal izateko. Bertan iritziak eta iradokizunak sartzeko aukera izango duzu. Sartu eta har ezazu parte!

www.tolosaldekohitza.info

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Mendiluze bigarren, 680 punturekin

Bertsolari Txapelketa»

Finalurrekoen fasea hasi zen atzo Bergaran; saioko onena Maialen Lujanbio izan zen.

ERREDAKZIOA

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalurrekoen fasea hasi zen atzokoan Bergaran. Iruran bizi den Aitor Mendiluze andoaindarrarekin batera Maialen Lujanbio, Beñat Gaztelumendi, Fredi Paia, Etxahun Lekue eta Jon Martin aritu ziren kantuan.

Mendiluze bikain aritu zen, izan ere, 680 puntu lortuta saioko bigarren postua eskuratu zuen.

Saioko bertsorik onenak, hala ere, Maialen Lujanbiok botatu zuten, izan ere bera izan zen puntu gehien lortu zituena, 708,5, eta beraz, Donostiako finalaren aurreko azken saioan izango da. Gainontzekoen puntuazioak hauek izan ziren: Beñat Gaztelumendi 644,5 puntu, Jon Martinek 619, Etxahun Lekue 608,5 eta Fredi Paia 596.

Gaurkoan izango da finalurrekoetako bigarren saioa Gasteizen eta Unai Iturriaga, Miren Amuri-



Mendiluze atzoko Bergarako saioko momentu batean kantari. HITZA

za, Xabier Paya, Maddalen Arzallus, Iñaki Zelaia eta Arkaitz Estiballes izango dira protagonistak.

Finalurrekoak

Finalurrekoen saio bakoitzeko irabazleek zuzenean finalurrekotako bigarren itzulirako txartela

eskuratu dute eta beste 14 bertsolari puntuazioaren arabera sailkatuko dira. Bigarren itzuliak hiru saio izango ditu eta 18 bertsolarik hartuko dute parte. Lehen eta bigarren itzuliko puntuazioak gehitu ondoren puntuazio altuena eskuratu dute zazpi bertsolariak

sailkatuko dira abenduaren 13an Andoni Egañarekin batera BEC-en jokatuko den finalerako.

Datozen saioak

Datorren asteburuan Tolosako eta Hendaiako txanda izango da. Tolosan hilaren 14ean izango dira eta Igor Elortza, Sustrai Colina, Iker Zubeldia, Uxue Alberdi, Iñaki Gurruztanga eta Ainhoa Agirreazaldegiri ariko dira.

Hendaian aldiz, Amets Arzallus, Jon Maia, Jone Uria, Aitor Sarriegi, Julio Soto eta Onintza Enbeitaren txanda izango da.

Tolosako eta Hendaiako saioen ondotik, hala ere, beste hiru saio ere izango dira. Hilaren 21ean Gernikan Tolosako Igoa, Gasteizko Igoa, puntuazioz 5.a, puntuazioz 8.a, puntuazioz 11.a eta puntuazioz 14.a diren bertsolariak izango dira. Hilaren 22an Iruñean, aldiz, Hendaiako Igoa, puntuazioz 1goa, puntuazioz 3.a, puntuazioz 6.a, puntuazioz 9.a eta puntuazioz 12.a izango dira. Finala baino lehenagoko azken saioan, hilaren 29an Donostian, hauek ariko dira: Bergarako Igoa, puntuazioz 2.a, puntuazioz 4.a, puntuazioz 7.a, puntuazioz 10.a eta puntuazioz 13.a.

Laburrak

Uzturperen urteko ohiko batzarra, ostegunean

IBARRA • Ibarra Uzturpe Ikastolak urteko ohiko batzarra egingo du datorren ostegunean, hilak 19, areto nagusian. Lehen deialdia 18:30ean izango da eta bigarren goa, aldiz, 19:00etan. Besteren artean, gai hauek jorratuko dituzte: errektore kontseiluko lehendakariaren aurkezpena, akta onartuko duten pertsonen aukeraketa, errektore kontseiluko berritzea, urteko balantze eta aurrekontua, Uzturpe Haur Eskola SL enpresaren desegitea eta 09-10 ikasturteko plana.

Autobusaren ibilbidea aldatuko da bihar

AMEZKETA • Amezetako Udalak argitu duenez, herrira doan autobusak «kepe motz baterako» plaza inguruko obrak egin zireneko ibilbide bera egingo du bihartik aurrera. Honen arrazoiak zera da, «zoruan jarritako harria puskatzen ari dela. Puskatzen ari den harri hori dena berritu egin behar denez, astebete inguruz, Auzoetxe ondoan geltokia hartu beharko da autobusak», argitu dute Udaleko arduradunak.

Herri kirolak eguraldi petralari aurre egiteko

Tolosa » Zerkasian eta Berdura plazan izan ziren herri kirolak arratsaldean; goizean, aldiz, Felix Garrido izan zen leku berean.

ERREDAKZIOA

Ez zen giro atzokoan Euskal Herri osoan. Asteburu honetan lehorrean eta babesean burutu behar izan dira ekitaldi guztiak, baita Tolosan

ere. Goizean Hernalde jatetxeko Felix Garrido sukaldariak Zerkasian barruan egin eta banatu behar izan zituen bere pintxoak.

Jendea, hala ere, animatu zen eta asko izan ziren sagarrez eta ondoez egindako ravioliak dastatzera gerturatutakoak.

Jokoak

Garrido goizean izan zen Zerkasian, asteroko azokan sukaldariak egin ohi duten erakustaldiaren

baitan, arratsaldean aldiz, umeek eta herri kirolek zein jolasek hartu zuten Zerkasian eta Berdura Plaza.

Tolosako dendariak antolatutako Dinamizazio Kanpainaren baitan egin ziren jokoak. Pasa den asteetan egurrezko jokoak eta zirku tailerrak egin dituzte. Atzokoan, berez, Triangulon eta Sortzez Garbiaren plazan ziren egitekoak, baina eguraldia dela-eta, babesean aritu ziren txikiak gora eta behera.



Goizean Felix Garrido aritu zen Zerkasian pintxoak banatzen. R. CALVO



Arratsaldean, aldiz, umeen eta herri jolasen txanda izan zen. R. CALVO

Zure negozioa ulertzen dugu



Ibilgailu Komertzialen Gama



TOLOSA MOTOR, S.A.

San Esteban auzoa, 14 - A • 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 03 37 Faxa: 943 65 29 38 • e-mail: tolosa.tolosa.redpeugeot.com

E Elkarrizketa

GUILLERMO OLMO Eskultorea



L. GARCIA

«Garai bateko Aralarreko zuhaitzak berreskuratu ditugu»

Amezketak Egun hauetan San Martingo baselizaren inguruko lursailera gerturatzen denak 'Atari' eskultura ikusi ahal izango.

REBEKA CALVO

Datorren larunbatean, hilak 14, inauguratuko dute San Martinen *Atari* izeneko arte lana. Izan ere, egun horretan bertan Enirio-Aralar Mankomunitatearen sorkuntzaren 600. urteurrena izango da eta hori dela eta ekitaldi ugari izango dira: eskulturaren inaugurazioa 12:30ean eta 18:00etan Ruper Ordorikaren eta Iker Goenagaren kontzertua (euria eginez gero Larrunarri pilotalekuan izango da). Inguruko baserrietatik hartutako ehun bat habek osatzen dute lana eta proiektu artistikoa Guillermo Olmo eskulturgileak zuzendu eta burutu du. Azken bost urteetan Amezketan bizi den artista bizkaitarra da Olmo, nahiz eta berez Lugan (Galizia) jaio zen 1960. urtean.

Nola bururatu zitzaizun artelan hau egitea?

Amezketako talde batek Aralarri omenaldia egiteko asmoa zuen eta mankomunitatearen sorkuntzaren 600. urteurrenaren ospakizuna gertu zegoenez, eskultura-proiektu bat egitea erabaki zuten, nahiz eta eskultura lanarekin batera beste disziplina bateko lanak ere bildu ditugun: poesia, bertsolari-

tza, argazkilaritza... Ondoren lan hauek guztiak biltzen dituen liburuare argitaratuko dugu.

Zein da 'Atari' lanaren oinarria?

600 urte hauetan inguruko basoek gehiegizko ustiapena jasan dute eta ondorioz, basoaren zati handi bat desagertu egin da eta zelai asko dago orain. Meatzearen ustiapena ere egon da eta oraintxe ere ardiak ustiapena ematen da... Hau guztiari, hau da, bai izandako ustiapenari eta baita gaur egungo lekuko jarduerari, omenaldia egin nahi genion lan honekin.

Zergatik ehun habe, zergatik enbor erreak?

Garai batean Aralarren egon zitezkeen zuhaitz horiek, bertako base-riak egiteko erabili zituztenak, berri ere Aralarrean ekarri nahi genituen. San Martinera bueltatu dira, hortaz, zuhaitz hauek guztiak eta bertikalki jarri ditugu euren duintasuna berreskuratzeko, nolabait. Erreta itzuli dira, hori bai, izan ere, hauxe da zuhaitz hauei guztiei pasa zitzaiena. Berez, erreta dagoen basoa da.

Enbor erreak izateak, hala ere, irudi negatiboa eman dezake.

Guk ez dugu irudi negatiboa eman nahi. Aralar ikustea ikaragarria da,

gozarena, inguru ireki eta polita da, parke natural ikaragarria, eta beraz, gure asmoa esperantza pixka bat irudikatzea da. Horregatik jarri ditugu habeen goikaldean kolore bizi eta deigarriak, zuhaitz hauek azkenean irtenbide bat izango dutela adierazteko. Bizirik daudela adierazteko.

Hilaren 14ean inauguratuko duzue, mankomunitatearen sorkuntza egunean, zer egingo duzue?

Mankomunitateko 15 udaletxeek Ordizian egin zuten sinadura orain 600 urte, eta beraz, Ordizian ere ekitaldi txiki bat egingo dugu. Ondoren eskultura inauguratuko dugu eta Amezketako lan taldeetako kideak, Udaleko arduradunak, Mankomunitatekoak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak gerturatuko dira.

Pasa den asteburuan zenbait habe ondatu zituzten eta desadostasunen aurresan proiektua herriko eragile desberdinekin adostutakoa dela esan izan duzu.

Horrela da bai. Hau guztiaren oinarrian Amezketako lan talde bat dago. Egia da lanaren zati handi bat nik egin dudala, artista plastikoa naizen aldetik, eta honek erantzukizun gehiago ere eman didalako, baina berez lantalde batetaz ari gara, jende askoren lanaz. Guztion artean erabakitako proiektua da. Aralar omentzeko modurik onena hau zela erabaki eta gero, Udale-

txeko hiru alderdi politikoekin hitz egin genuen, eta denei ondo iruditu zitzaion. Bilerak irekiak ere antolatuta genituen herriarren ekarpenak jaso eta laguntzeko aukera ere emateko; batzuk idazteko erraztasuna daukate eta bertsoko egin dituzte, beste batzuk niri lagundu didate lanarekin... bakoitzak ahal eta nahi izan duen konfiantza lagundu du. Habeak, esaterako, pasa den asteburuan jarri genituen auzolanean.

Amezketako beste hainbat artitek ere badute lekua proiektu honetan, ezta?

Ni ere azken bost urteetan Amezketan bizi naiz, nahiz eta bizkaitarra izan. Amezketako Maite Gu-

Herriko jende askok hartu du parte proiektu honetan modu batera edo bestera

Jendeak ikuspegi desberdinak izango ditu urte sasoiaren arabera. Lan bizia da.

rrutxagak eta Sara Gomezek —liburuarekin egingo du— ere parte hartu dute proiektuan. Era berean, inauguraziorako Iker Goenaga eta Ruper Ordorikaren gonbidatu ditugu. Ordorikaren duen estiloarengatik, intimista... proiektuarekin bat egi-

ten duela iruditu zaigulako eta Iker Goenaga zizurkildarra izanda ere lotura duelako herriarekin eta berearekin amezketar batek ere jotzen duelako, Iban Gurrutxagak. **Zergatik da garrantzitsua zuretzako era honetako proiektu batean parte hartzea?**

Bi arrazoiengatik, batetik, partaidetza-proiektua delako, ez delako artista batek egiten duen lan arrotza, eta bestetik, beharrezko delako maila plastiko eta estetikoan erreferente berriak edukitzea. Izan ere, eskulturak indar handia izan du Euskal Herrian, eskulturgile oso garrantzitsuak ditugu, baina hauek guztiak, bizirik dauden oraindik, urte asko dituzte, eta beraz belaualdi aldatuta batematen ari da.

Zure lana bertan geratuko da gainera, zuk esan bezala, paraje ikaragarri batean...

Leku ederra da, kristoren ikuspegi du, Txindokiren parean dago... Nire ustez Txindokiren ikuspuntu berri bat da. Lan bizia da. Igarobide bat da, gainera, erabiltzeko lekua da, bertara joan eta jolasteko, bazkaltzeko... Jendeak bertara joan eta ikuspegi desberdinak izango ditu, eguraldiaren arabera, edota urtaroren arabera... gaez oso polita izango da ilargi betearen dagoenean, elurrarekin estalduta, udazkeneko koloreekin... Aldatzen joango da, baso desberdinak izango balira bezala.

Zenbat denbora eman duzu hau guztia diseinatzen?

Gutxi gorabehera urte bete izan dugu guztia gauzatzeko. **Gustura geratu zara, hortaz.** Guztiz. Oso oso gustura nago auzolanean egindako lana delako, batez ere.



Ikaztegiatan pilotalekuan Emakumea Pilotari txapelketako partidak jokatu zituzten atzo. A. IMAZ



Arroz esne txapelketa egin zuten Berastegiko Kultur Astean. A. IMAZ



Amezketako Kultur Astearen baitan, bi ekitaldi izan zituzten Ugarten. Irudian Eresargi abesbatzaren emanaldia. A. IMAZ



Ibarrako Gazte Asanbladaren Kultur Astean futboli txapelketa. A. IMAZ

Udazkeneko berotasuna: kultura

Kultur Asteak » Orexan atzo amaitu zen Kultur Hamabostaldia. Amezketan, Berastegin, Ibarran eta Ikaztegiatan ekitaldiek aurrera jarraitzen dute.

ASIER IMAZ

Euriaren eta hotzaren aurkako errezeta eskaini zuten atzo kultur ekitaldiek eskualdeko hainbat herritan.

Ibarrako Gaztearen XVI. urteurrena ospatzeko antolatutako Kultur Astearen baitan, atzo futbolen eta mus txapelketak jokatu zituzten Gaztearen bertan.

Ikaztegiatiko Udazken Kulturalean berriz, berotasuna pilotalekuan aurkitu zuten, Emakumea Pilotari txapelketako partidaren besean.

Amezketako Kultur Asteak

atzoko lehen ekitaldia Ugarterko elizan ospatu zuen, Villabonako Eresargi abesbatzaren emanaldia-rekin. Ondoren, sardina eta saiheki jatea burutu zituzten.

Orexan atzo amaitu zen Kultur Hamabostaldia, herri afari eta erromeriarekin.

Berastegin arroz esne onena

Kultur Astearen baitan arroz esne txapelketa antolatu zuten Berastegin. 30 sukaldarik hartu zuten parte eta irabazlea Maria Dolores Egues izan zen. Ondoren sagardoa nola egiten den erakutsi zuten.

» KULTUR ASTEEN EGITARAUAK

AMEZKETA

Gaur, hilak 8

■ **11:00etan, 12:00etan eta 13:00etan.** Errota, Zazpituiri zentrala eta energia berriztatzaileen erakusketa ikusteko aukera, zirkuitu gidatu bat eginez.

Bihar, hilak 9

■ **20:30etan.** *Pernando eta errota* hitzaldia Joxe Mari Oterminen eskutik, gela balioanitzean. Garikoitz Bernarasek gai honen inguruan egin duen proiektua aurkezpena.

Etzi, hilak 10

■ **18:00etan.** *Osteoporosia, nola arindu sintomak* hitzaldia, gela balioanitzean.

■ **20:30ean.** *Erleen mundua* hitzaldia izango da, gela balioanitzean.

BERASTEGI

Gaur, hilak 8

■ **12:00etan.** Gaztainondo elkartean ardo dastaketa Prexen Urki-zuren eskutik.
■ **16:30ean.** Frontoian Xurdinen emanaldia haurrentzat, Kutxaren eskutik.
■ **17:30ean.** Euskaraokea.
■ **18:30ean.** Txokolatada.

Hilak 12, osteguna

■ **17:00etan.** Eskolako jangelan Idoia Sanchezen ipuinak.
■ **21:00etan.** Eskolako ganbaran

Berastegin hondakinen birziklaketara eta traste zaharren bilketari buruzko hitzaldia eskainiko du Xabier Lekuonan.

IBARRA

Gaur, hilak 8

■ **18:00etan.** Talo jana Gaztearen.

Etzi, hilak 10

■ **19:00etan.** Sexologia hitzaldia Gaztearen.

IKAZTEGIETA

Hilak 15, igandea

■ **Ikaztegiatiko Herri Krosa.** Herri gintza Elkartean eskutik.

E Elkarrizketa

SAMIRA GODDI Tolosaldeko immigrazio teknikaria

«Eskualdea aztertu eta beharrei erantzuna ematea da gure egitekoa»

Gizartea » Urriaren hasieratik immigrazio teknikari berria da; eskualdeko eragileekin zubi lana, kudeaketa eta koordinazioa egitea dira bere egiteko nagusiak.

INIGO TERRADILLOS

Tolosaldeko immigrazio teknikari berria da Samira Goddi (Donostia, 1984). «Gogotsu» ekin dio ardurara berriari. Kudeaketa lana da bere egiteko nagusia, eta bere ustez, «guztia ondo kudeatzen bada, dibertsitatea eta pluraltasuna oso aberatsak dira, eta pribilegiatuak garaia konturatu behar dugu».

Zer moduz ekin diozu lan berriari?

Urriaren hasieran hasi nintzen Tolosaldeko immigrazio teknikari bezala lanean. Hasiara ona izan dut, eta lehenengo inpresioa ere ona izanda. Eskualdeko immigrazio teknikaria naizen heinean, koordinazio lan handia egin behar dutinguruko herriekin. Pixkanaka eskualdea ezagutu behar dut, eta eskualdean dauden elkarteak, taldeak eta erakundeak ere bai.

Nolakoa eskualdea da Tolosaldea?

Eskualde jatorria dela esango nuke. Aukera asko ematen dituela uste dut ekintzak aurrera eramateko orduan. Dinamikoa da, parte-hartzailea.

Zein helburu dituzu finkaturik?

Urteari amaiera emateko finkaturik dauden ekintza batzuk burutuko ditugu. Sentsibilizazio ekintzak dira, hain zuzen ere. Datorren urteari begira ere, hau da, urtariletik aurrerakoa nahiko finkaturik dago, orokorki behintzat. Esan beharra dago aurretik lan handia egin dela, eta noski, horri jarraipena eman behar zaio. Bestalde, ekintzetan parte hartzea gure egitekoa da, eta koordinazioa eta kudeaketa lana ere hor dago. Transbertsalitateko erakunde eta espazio ezberdinetan lan egitea da nire xedea.

Nolakoa da zure eguneroko lana?

Orain arte, batik bat, egokitze lana izan dut, izan ere, lehendabizi eskualdea ezagutu beharra dago,



I. TERRADILLOS

bertako egoera zein den jakin, bertako taldeak, erakundeak... Bestela, nire lana antolaketa eta koordinazio lana da. Orain, esaterako komiki lehiaketa antolatzen ari gara, beraz, kartelak egin, parte-hartzaileekin hitz egin, inprenta... kudeaketa lana egin behar da. Horretaz gain, mahai ezberdinetan bilerak egiten ditugu, udaletxeekin, Eusko Jaurlaritzarekin... Hori ez da eguneroko lana izaten, baina, bai

maiztasun batekin egin beharrekoa. Immigrazioarekin loturiko albisteak jarraitzea ere badagokit; berri horiek zabaldu edota landu egin behar ditut, esaterako. Oso zabal da lan esparrua.

Herriarrek zuzeneko harrera ba al dago?

Berez ez dut zuzeneko harrera eskaintzen, izan ere, horretarako elkarteak eta erakundeak badaude, behar zehatzei erantzunez. Nola-

bait esateko, nirea egoerari goitiki eginiko begirada bat bezala litzateke.

Beste sailekin elkarlanean aritzen al zarete?

Bai. Esan bezala, koordinazioa da gure ardatz nagusia. Gizarte Zer-

Tolosaldean atzerritarren portzentaia txikia da, beraz, garazi gabilta gauzak ondo egiteko

Datorren urtean plan bat martxan jarriko dugu eskualdeko errealitate azagutzeko helburuz

bitzuekin, ikastetxeekin, anbulategiekin, Berdintasun sailarekin... immigrazioarekin loturiko guztia-arekin dago koordinazioa.

Arlo edota sail batekin bereziki lotura handiagoa al du immigrazioak?

Agian, Gizarte Zerbitzuek immigrazioari lotuta joan behar dutela uste dugu, baina ez du zertan horrela izan. Gaur egun, gauden egoera dela eta, ate horretara alde guztietakoak gerturatzen dira, bertakoak nahiz atzerrikoak. Ziur oso parekaturik daudela. Immigrazioarekin lotutako beharrak arlo askotakoak izan daitezke. Hizkuntza izan daiteke behar handietako bat. Gai asko daude lantzeko.

Behar nagusiak zein diren aztertzea dagokizu, beraz.

Nerea zubi lana da. Herriak aztertu, behatu, eta ikusten diren beharrei erantzuna nola eman pentsatu behar da. Hor elkarteek hartzen dute pisu handia, izan ere, nolabait esateko herriaren ahotsa dira, eta bertako egoera gertutik ezagutzen dute, beraz, oso kontuan hartu beharrekoak dira. Horregatik, elkarrekin koordinazio lan handia egin behar da. Bestetik, diru laguntzak

eta udaletxeak dituen planak, esaterako, aztertu behar dira, eta udaletxe teknika-erriekin elkarlanean aritu. Beraz, hauek guztiak kontuan hartuta, eskualdeko egoeraren berri izan, eta baliabideen kudeaketa lana egitea litzateke azken batean egitekoa.

Zein behar edo hutsune ikusten dituzu eskualdean?

Nire ustez, prebentzioan jarraitu beharra dago lanean. Sentsibilizazioan etengabeko lana egin behar da, bai bertakoei nahiz eta atzerrikoei zuzendua. Kasu honetan, gainera, oso baliagarriak izan daitezke *Tolosaldeko Baliabideen Gida* edota hainbat hizkuntza hartzen dituen hiztegia. Elkarren artean gerturatzeko balio duten puntuak bilatzen jarraitu behar da lanean, izan ere garaiz gabilta arlo honetan lana ondo egiteko, oraindik ere atzerritarren portzentaia txikia baita Tolosaldean. Bestalde, behar zehatzei erantzuna ematen jarraitu behar dugu: integrazioarako behar diren tresnak indartu behar ditugu, eta hor barruan legoke, esaterako euskara. Hala, euskara irakasteko aukerak zabaldu behar ditugu. Horretaz gain, formakuntza landu behar dugu: teknikari-ekintzetan dituzten beharren arabera eskaini behar dugu formakuntza. Hori oso garrantzitsua da, eta etengabea izan behar du.

Etorkinen portzentaia bajua dela eskualdean esan duzu.

Bai. Tolosaldea Gipuzkoan behetik hasita hirugarrena dago. %3 dira atzerritarrak. Horietatik gehienak portugaldarrak eta errumaniarrak dira, eta Europar Bata-sunetik kanpo, berriz, Maroko eta Nikaraguakoak dira gehienak. Hauek, beti ere, errodari begiratu-ta ateratako datuak dira.

Eskualdeari buruzko errealitate aztertuko duzue hainbat eragilek.

Datorren urtean plan bat martxan jarriko dugu. Erakunde eta elkarte desberdinek landuko dugu, eta helburua Tolosaldeko errealitate aztertzea izango da. Nire ustez, herriarrek guztiak dugu ardura. Denon artean egin behar dugun lana da, erakundeetatik hasi eta herritarretaraino, denok baitugu zertan parte hartu. Dibertsitatea eta pluralitateak oso aberatsa da ondo kudeatuz gero, eta pribilegiatuak garaia konturatu behar dugu.

denda

eskura ezazu...

HITZAren poltsa!
harpidedunak 19€, besteak 24€

HITZAren jaka beltza!
harpidedunak 50€, besteak 60€

neskentzat nahiz mutilentzat!



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hermialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



Zorionak!

Martina Iturbe (Bedaio). Orain artean bezala, ama, amona eta biramona maitagarria izaten jarrai dezazula. Zorionak zure 95. urtebetetzean. Muxu haundi haundi bat famili guztiaren partetik.



Zorionak!

Animo eta eutsi! Laster zaude gurekin!

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZ Aren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZ Aren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

A Agenda

Kirola

- **Alegia.** Ginkana Larraitz auzoan, 11:00etan.
- **Tolosa.** Miguel Mindegia eta Donato Larretxearen arteko apustu zezen-plazan, 12:00etan.

Zinema

- **Tolosa.** Leidor aretoa gaur: 17:00etan *Kika superbruja* haur-errentzako filma, eta 19:30ean eta 22:00etan *Frozen river*.

Bihar (ikuslearen eguna):
20:30ean *Frozen river*.

- **Villabona.** Gurea aretoa gaur: 17:00etan *Cherami* (euskaraz), eta 19:30ean *Zorion perfektua*. Bihar (ikuslearen eguna): 21:30ean *Zorion perfektua*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK Gaur

- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

• **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

Bihar

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adieraztako esanetan eta iritzien erantzunik.

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 2. alea

berriaren
harpidedun eta irakurleek
erdi prezioan **12€**

Bete ezazu **urriaren 18tik 31 bitartean** BERRIAN argitaratuko den **erreserba kuponia** eta utzi zure kioskoan **azaroaren 8a** baino lehen.

BI ASTEREN BURUAN KIOSKO BEREAN JASOKO DUZU LIBURUA.

Laguntzailea **FAGOR**
Aukereta ezazu, bizi euskaraz **berria**

Gorrotxategi PRODUKTUAK

Turroi sorta **29€**

Tolosako xaxuak
Txakolin txokolata
Jogurt turroia masusta gorniarekin
Aktikoa eta merxika turroia

Turroi askotarikoak **19,50€**

Mandarina turroia bollur zurarekin
Txokolata turroia almendarekin
Merxika turroia txokolatarekin
Jogurt turroia masusta gorniarekin

EUSKAL HERRIKO PRODUKTUEKIN OSATUTAKO SASKIAK

Saskia **4€**

Osasun-erretin ardi gazta, 300 g
Nafarroako gibel-oreg, 150 g
Basoteren besoa, 100 g
Etxeko txerriko botila 100 g
Sagar ditza, 100 ml
Agiñako piperrak, 370 ml
Getariako hegaltza, 100 g
Zaincuzuri zurik, ekologikoa, 140 g

Saskia **59€**

Idiazabalgo ardi gazta, 250 g
Frogas Botila, 100 g
Etxeko txerriko botila 100 g
Basoteren besoa, 100 g
Miliore eztoa, 200 g
Agiñako piperrak, 370 ml
Getariako ardoak, 100 g
Getariako hegaltza, 100 g
Pikillo eztoa, 200 g

Erosi berriaren plazan

EUSKAL HERRIKO PRODUKTUAK

azaroaren 30a arte

943-30 43 45

www.berria.info

harpidetza@berria.info

Bidalketa gastuak daude

